



**Espedientearen kodea:** 2024ZZ020004

**Espedientearen gaia:** 2024ean Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.

**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

**Xabier de la Mota Vazquez, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024/07/23n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

**“2024 URTEAN XANISTEBANAK JAIETAN EKITALDIAN ANTOLATZEKO HERRIKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZEN BANAKETA ETA ORDAINKETA ONARTZEA ETA DIRULAGUNTZAREN LEHEN ZATIA (%80) ORDAINTZEA.**

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, aintzat hartuta, 2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOn. Era berean, 2021eko azaroaren 27an “Oiartzungo Udalaren 2022-2024 dirulaguntzen Plan Estrategikoa” onartu zuen.

Dokumentuokin adostasunean, 2024ko apirilaren 23an Udal Tokiko Batzarrak “2024 urtean Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen eta 55.000 €-ko izendapena egin zuen 2024 urteko 1 0331.481.338.00.10.2024 zenbakidun partidaren kontura. Era berean, eskaerak aurkezteko epea ireki zuen maiatzak 1etik 31a arte.

Epearen barruan, 27 kultur ekintzetarako eskaerak aurkeztu dira. Ekintza hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko 56.829 € ko dirulaguntza eskaerak aurkeztu dira.

Kultur teknikariak eskaerak aztertuta egindako balorazio-txostenaren baitan eta Herritarren Batzordeak 2024ko uztailaren 17an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez honako akordioa hartu du:

### AKORDIOA

Lehena.- Epearen barruan, aurkeztutako eskaerak aztertuta, 2024ean Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena onartzea, honako taulan txertatzen dena, guztira 54.389,71 € ko dirulaguntzak onartuz Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0331.481.338.00.10.2024 (A-988-2024) zenbakidun partidaren kontura:

XANISTEBANAK DIRULAGUNTZAK							
	EKINTZA	PUNTUAK GUZTIRA	ESKATUTA	LAGUNTZA % 100	DIFEREN TZIA	LEHEN ORDAINKE TA % 80	BIGARREN ORDAINKE TA % 20
1	OIARPE K.E. PILOTA JAIALDIA	65	1.530,00 €	1.530,00 €	0,00 €	1.224,00 €	306,00 €
2	OIARPE K.E. KONTSEJUPE TXAPELKETA	58	2.200,00 €	2.200,00 €	0,00 €	1.760,00 €	440,00 €
3	OIARPE K.E. TRUK	42	150,00 €	150,00 €	0,00 €	120,00 €	30,00 €
4	GIRIZIA ELKARTEA: PALA TXAPELKETA	51	950,00 €	950,00 €	0,00 €	760,00 €	190,00 €
5	SOINUENEA: ERRALDOIAK, KALEBUELTAK	90	4.403,00 €	4.025,18 €	377,82 €	3.220,14 €	805,04 €
6	EÑAUT RETEGI LEKUONA: GOSARITXOW E	107	3.364,00 €	3.364,00 €	0,00 €	2.691,20 €	672,80 €
7	ITURRI BERRI: HERRI KIROLAK	53	2.440,00 €	2.370,38 €	69,62 €	1.896,31 €	474,08 €
8	OTXE K.E. TXIRRINDULARI LASTERKETA	83	3.410,00 €	3.410,00 €	0,00 €	2.728,00 €	682,00 €
9	OAFA A. FEMINISTA: BAZKARIA, DRAG ET	117	4.432,00 €	4.432,00 €	0,00 €	3.545,60 €	886,40 €
10	MUNANIER E.: DJ EMANALDIAK	66	1.350,00 €	1.350,00 €	0,00 €	1.080,00 €	270,00 €
11	MARTZELINA BERTSO E.: HIRU BERTSO SA	80	3.169,00 €	3.169,00 €	0,00 €	2.535,20 €	633,80 €
12	HAURTZARO IKASTOLA: HAUR PARKEA	61	2.420,00 €	2.420,00 €	0,00 €	1.936,00 €	484,00 €
13	HAURTZARO IKASTOLA: TXOKO JOLASAK	46	600,00 €	600,00 €	0,00 €	480,00 €	120,00 €
14	HAURTZARO IKASTOLA: XAKE	46	375,00 €	375,00 €	0,00 €	300,00 €	75,00 €
15	HAURTZARO IKASTOLA: DANTZARIAK ZAH	51	500,00 €	500,00 €	0,00 €	400,00 €	100,00 €
16	ALDEGUNA ELKARTEA: DANTZA TXAPELK	50	2.350,00 €	2.236,21 €	113,79 €	1.788,97 €	447,24 €
17	IDIYAZALEAK ELKARTEA: IDI-DEMA	54	2.950,00 €	2.415,11 €	534,89 €	1.932,09 €	483,02 €
18	ELIZALDEKOAK GURASO E: IPUINAK, TXOT	83	2.995,00 €	2.995,00 €	0,00 €	2.396,00 €	599,00 €
19	BIYURRIENEA GAZTEEN ELKARTEA: GAZTE	122	2.450,00 €	2.450,00 €	0,00 €	1.960,00 €	490,00 €
20	GAZTE IZANAK: JOKOAK	56	1.000,00 €	1.000,00 €	0,00 €	800,00 €	200,00 €
21	AUZOKALTE E.: ZEZENAK	52	726,00 €	726,00 €	0,00 €	580,80 €	145,20 €
22	AUZOKALTE E.: DANBORRADA	53	1.500,00 €	1.500,00 €	0,00 €	1.200,00 €	300,00 €
23	IBARGAIN ELK.: PINTXO ETA SAGARDO LE	65	1.975,00 €	1.975,00 €	0,00 €	1.580,00 €	395,00 €
24	ARTASO ELKARTEA: SOKATIRA	84	3.000,00 €	3.000,00 €	0,00 €	2.400,00 €	600,00 €
25	LARTAUN ABESBATZA: KANTU KANTARI	62	650,00 €	650,00 €	0,00 €	520,00 €	130,00 €
26	MINDARA E._ PILOTA EGOKITUA	70	840,00 €	840,00 €	0,00 €	672,00 €	168,00 €
27	HAURTZARO IKASTOLA: KORRONTZI EMA	84	5.100,00 €	3.756,83 €	1.343,17 €	3.005,47 €	751,37 €
	<b>GUZTIRA</b>	1851	56.829,00 €	54.389,71 €	2.439,29 €	43.511,77 €	10.877,94 €

Bigarrena.- Oinarrietan ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak onarpenarekin batera egitea (%80ari dagokiona, hau da 43.511,77 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, 10.877,94 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araberako, Oiarzunen, sinaduraren egunean.

Idazkariak  
Xabier de la Mota Vazquez

O.E.  
Alkateak  
Joana Mendiboure



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZZ020004-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (OIARTZUNGO UDALA)